

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

60 emakumek parte hartuko dute Nafarroako Toki Erakundeetako Emakume Politikarien Foroaren lurralde-saioetan

Politikan aritzen diren 40 emakumek Iruñeko saioan parte hartu zuten atzo, eta gaur 20 emakumek Garesen parte hartuko dute

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 24

Atzo, bi talde bildu ziren Iruñean, talde bakoitza 20 emakumek osatua, eta, gaur, saioa Garesen egingo da, Erdialdeko Zonako 20 emakumerekin.

20 emakumeko bi taldek parte hartu zuten atzo Iruñean Nafarroako Toki Erakundeetako Emakume Politikarien Foroaren lehen lurralde-saioan. Erakunde hori pasa den [urtarrilaren 15ean](#) sortu zuten, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak eta Herritarrak Artatzeko eta haiek Parte hartzeko Zerbitzuak bultzatuta, Nafarroan tokiko politikan aritzen diren emakumeen ahalduntzea bideratze aldera.

Gaur, Garesen egingo da Erdialdeko Zonari zuzendutako lurralde-saioa, eta, bertan, toki-politikan aritzen diren beste 20 emakumek parte hartzea espero da.

Aste honetako lurralde-saioetan, emakume politikariek parte hartzeko dituzten muga espezifikokoak lantzen ari dira. Horretarako, emakumeen eta gizonen desberdintasunari buruzko analisi labur batetik eta dauden genero-arrailetatik abiatuta, politika-mailako ahalduntzea eta horren dimentsioak jorratu dituzte; baita ere, politikan abiatzeko, sartzeko eta mantentzeko eragozpenak; sentitutako zailtasunak, sinesmen mugatzaileak eta horiek gainditzeko prozesuak.

Foroak beste lurralde-saio batzuk egingo ditu otsailaren 20an eta 21ean, eta horietan eragozpen horiek gainditzeko tresnak identifikatuko dituzte. Azkenik, martxoaren 14an, landutako emaitzak bateratu eta denentzako agenda bat sortuko dute, parte-hartzaile guztiei zuzendutako osoko bilkura batean sortutako sarean.

Gida

Foroaren saioekin batera, gida bat egingo da helburu bikoitzarekin: batetik, egindako lana dokumentatzea, parte-hartzaileek jasotakoa laburtuaz eta haien ekarpenak testuinguruan kokatuaz; eta, bestetik, etorkizunean abian jar daitezkeen ekintzak identifikatzen laguntzea, parte



Parte-hartzaileak Emakume Politikarien Foroan.

hartzeko eta ahalduzko espazio iraunkorrak sortzearen, Nafarroako tokiko politikan aritzen diren emakumeen zerbitzura.